

# GETXOKO KULTUR ETXEAREN ARTEZKARITZA BATZORDEAK 2018KO EKAINAREN 19AN GETXOKO UDALETXEAN EGINDAKO BILERAREN AKTA, JARRAIAN ADIERAZITAKO KIDEEEN BERTARATZEAREKIN

## PARTAIDEAK

### PRESIDENTEA

Koldo Iturbe jauna

### MAHAIKIDEAK

Ignacio Uriarte jauna  
Elena Coira andrea  
Alvaro Gonzalez jauna  
Keltse Eiguren andrea  
Joseba Arregi jauna  
Ignacio Gamero jauna  
Susana de Cos andrea  
Miguel Ibabe jauna  
Paula Amieva andrea  
Susana Andollo andrea  
Enrique Olaso jauna  
Nerea Guijarrubia andrea  
Ibon Rodriguez jauna  
Oier Iturralde jauna  
Jose Luis Landa jauna  
Santiago Sainz jauna

### GAI-ZERRENDA

- 1. 2018ko maiatzaren 22an egindako batzarraren akta onesteko proposamena.

Ez dagoenez aldatzeko proposamenik, onetsizat jo da.

2. Kultur Etxea erakunde autonomoaren 2017 ekitaldiko urteko kontuaren berri ematea eta udalaren kontu orokorrean sartzeko proposatzea.

Informazioa deialdiarekin batera bidali zen; galderarik ez dagoenez, Udalera bidaliko da.

3.- LPZ aldatzeko proposamena: Romo Kultur Etxeko atezain postuen berriazko osagarria igotzea, txandak finkatzeagatik.

**Koldo Iturbe jaunak** aipatu du aurreko otsailaren 13an bilera bat egin zela, eta bertan eman zela Romo Kultur Etxean lanean ari diren Getxoko Kultur Etxeko atezainei eragiten zieten aldaketen berri. Romoko mandatariak, lehen Nagusien Etxean lan egiten zutenak, Romo Kultur Etxean lanean hasi ziren, eta, horrenbestez, iragarritako aldaketak une horretatik aurrera hezurramitu ziren, hau da, mandatariak eta

atezainak baldintza berberetan lanean ari zirenetik. Beraz, Kultur Etxeko atezainen berariazko osagarria doitu behar da, Nagusien Etxetik datozen mandatarienarekin berdintzeko. Dokumentazioa bidali da.

**Ibon Rodriguezek** aipatu du abstenitu egingo direla, eta langileek, osagarri berezi bat badute, merezi dutelako daukatela. Uste dute, ordea, asko inprobisatzen ari dela, eta inprobisatuz egiten ez bada, ez dakite zeintzuk izango diren plangintza horiek etorkizunean, ezta Udalari zein betebehar ekarriko dizkioten ere. Horrez gain, LPZren eta Kultur Etxearen aldaketek ari direnez, berriz aipatu du Udal Euskaltegiko irakasleen aldarrikapena.

EGINDAKO JARDUERAK

**Larunbata, 2**

### **XVIII. "EMAKUMEAK MUSIKAN" JAIALDIA**

Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:00etan, Emakumeak Musikan elkartearen eskutik, SIGMA PROJECT (saxofoi-laukotea). Sarrera: gonbidapenarekin, Romoko eta Algortako kultur etxeetan jaso daitezke. Bertaratutakoak

**Aurten, ekainaren 2an 150 izan ziren, eta igandean jaitsi egin zen: 30 izan ziren, gutxi gorabehera.**

#### **I. KANTU BAND**

Algortako Biotz Alai Abesbatza plazan, 18:00etan, bertako hainbat ikastetxeetako eta abesbatzetako eta Andrés Isasi Musikalia Bandako *euskal kanten* hainbat ikasleren eskutik, haurren abesbatzen jaialdia. Sarrera dohainik.

8 ikastetxek hartu zuten parte, haurren 6 abesbatzen laguntzarekin: guztira 258 haurrek hartu zuten parte.

Andres Isasi Musikalia bandak jo zuen musika: 20 musikari eta bi aurkezle egon ziren.

*Igandea, 3*

#### **II. TXIKI KANTA**

Algortako Biotz Alai Abesbatza plazan, 12:00etan, haurren abesbatzen jaialdia, Salamancako, Laudioko, Amorebieta-Etxanoko, Bilboko eta Getxoko zazpi abesbatzaren eskutik. Sarrera dohainik. Antolatzailea: Lilura Abesbatza.

.

### **"KALE-ANTZERKIA BULTZATUZ" JAIALDIA**

Ekainaren 8aren eta 10aren artean egin da, Romoko Santa Eugenia plazan, eta honako hauek bertaratu dira, gutxi gorabehera:

Ganso aretoa: 110

Kartoi-tailerra: 100

Ondorengoak: 140

Nai: aretoa 100

Titi teron: 140

Makillatu nazazu: 60

Toronbole: 100

Trapu zaharra: erak. aretoa 70 /80

*Ostirala, 15*

#### **GETXOKO XXV. DANTZA EGUNA**

**Algortako Biotz Alai plazan, 20:00etan, DANTZARTEko ikasleen koreografiak, 15etik 17ra.** ROMOKO CARMEN VERAREN DANTZA ESTUDIOA (18:30ean) eta ANA LARAREN DANTZA ESTUDIOA (20:30ean). AREETAKO FLAMENKO ESKOLA.

Jende nahikoa bertaratu zen. Ostiralean hobeto, ia beteta.

#### **GETXOTAR ABESBATZEN XI. EGUNA**

Algortako Biotz Alai plazan, 18:00etan, ALAI, ERROMOKO KANTARIAK, ANDRÉS ISASI, ZOZOAK, LILURA, IRUTASUN, BIOTZ ALAI, AREETXO, KIMETZ, ITXARTU, ESKUZ-ESKU eta ONDARRETA abesbatzen emanaldia. Ia beteta.

#### **HURRENGO JARDUERAK**

#### **XIII. BIGARREN ESKUKO LIBURU-AZOKA SOLIDARIOA**

Ekainaren 20tik 24ra, bigarren eskuko liburuen salmenta Algortako Kultur Etxean, udal liburutegiei dohaintzan emandakoena. Ekimenak biltzen duen dirua (gehienez, 1 € ale bakoitzeko), Ayuda Más GKEren proiektu solidario bati emango zaio. Ordutegia: 11:00-14:00 eta 17:00-21:00 larunbatera arte, eta 11:00-14:00 igandean. Sarrera librea, lekua bete arte.

#### **Osteguna, 21**

#### **KONTZERTUA:**

Biotz Alai Abesbatza plazan (Algorta), 20:00etan, FETÉN FETÉN eta ANDRÉS ISASI MUSIKALIA BANDA.

*Ostirala, 22*

#### **BALKOITIK BALKOIRA**

Etxetxu plazan (Algortako Portu Zaharra), 22:00etan, Algortako Bertso Eskolaren eskutik (ALBE), BALKOITIK BALKOIRA: MAIALEN LUJANBIO-AMETS ARZALLUS. Sarrera dohainik.

#### **HURRENGO JARDUERAK**

Uztaileko eta abuztuko programazioa bidali zaizue. Nabarmentzekoak dira jazz eta blues jaialdiak uztailean, eta San Lorentzo azoka abuztuan.

**Presidenteak** aipatu du beste bi gairen berri eman behar duela.

Batetik, epai baten berri eman behar zaizue; haren kopia bat banatu zaizue. Bere garaian, GUK GETXOK bi puntu bidali zizkigun, Artezkaritza Batzordearen gai-zerrendan gehitzeko.

Presidentearen ezezkoaren ondorioz, GUK taldeak errekurtsio bat aurkeztu zuen. Lehen auzialdian, auzitegiak GUK GETXOren aldeko epaia eman zuen, eta bigarren errekurtsioan ere GUK GETXOren alde egin zuen. Horrenbestez, Kultur Etxeak eta Udalak ez dute errekurtsio gehiagorik aurkeztuko, eta epaia oraindik irmoa ez den arren, Artezkaritza Batzordeak uztailako saioan puntu horiek gehituko ditu gai-zerrendan. Eskatu zen Udal Euskaltegiko langileen ordezkariak egon zitezen Artezkaritza Batzordean eta abian jarri zedin Udal Euskaltegiko irakasleen soldatak berdintzeko prozesua.

**Enrique Olasok** honako hau adierazi du: epai bat dago eta bete egingo duzue, normala den moduan, baina irakurketa politiko bat eta jarduteko modu zentzuzkoago bat espero dugu; hau da, jakin nahi dugu zein den zuen irakurketa, eta etorkizunean antzeko arazo gutxiago egongo ote den, zer uste duzue?

**Koldo Iturbek** adierazi du epaiak esan duela oker zegoela, eta arrazoia eman diela GUK Getxok erabilitako argudioei: Beti eskatuko diet iritzia teknikariei, haiek emandako argudioak onartuko ditut eta aurrera jarraituko dut; erratzen banaiz epaiak zehaztutako bideari jarraituko diot, hau da, bik ados jarri ezin dutenean epaitegira jotzen dugu, eta hark erabakitzen du nork duen arrazoi.

Epaiari jarraikiz, badirudi ez genuela arrazoirik, eta hori onartu beharra dago, epaiak hala dioelako.

**Koldo Iturbek** jakinarazi du hurrengo gaiari helduko zaiola: aspaldi ari dira lanean espazioak lagatzeko araudi bat egiteko. Bere garaian talde politikoek hainbat eskaintza egin zituzten; ordutik prozesu osoa geldiarazi genuen, batez ere, uste dugulako zenbait gauzatan GUK taldearen proposamenek arrazoi zutela, eta guztia argitu nahi dugu aurrera jarraitu aurretik. Honako hau egingo dugu: lehenik, izapideak hasi behar ditugu eraikinak atxikitzeko, egun ez baitaude Kultur Etxeari atxikita.

Prezio publikoen ordenantza ere bideratu beharra daukagu; izan ere, egungo prezio publikoen ordenantzak ez ditu jasotzen doako lagapenak. Horretarako, testu hori jorratu beharra dago, eta zuekin batera araudi hori landu beharko genuke, ordenantzari doitzeko.

Kultur Etxeko espazioen lagapenen arduradunentzako instrukzio bat onartu dut, espazioak lagatzeko zein barne-irizpideei jarraituko diegun zehazten duena.

Une honetan arazoa Romo Kultur Etxean areagotu da, dagoen eskaintza kopuru altua dela eta; ondo dakizue zuek, erabiltzaileak zarete eta. Ondorioz, barne-instrukzio bat onartu dut, paraleloki lanean jarraitzen dugun bitartean aplikatzeko.

Araudi hori ekarri egin dizuegu, zuek ikusi ahal izateko: oso soila da, oso erraza: lau lerro, zuek izan ditzazuen. Lanean ari garen bitartean zuekin harremanetan izango gara, ordenantza aldatu behar bada ere; hala bada, eta atxikipena bideratu behar bada, ez da batere erraza izango, eta ez politikoki soilik, teknikoki ere zailtasunak daude. Bien bitartean, emandako testu erraz hori erabiliko dugu banaketa egiteko.

ESKAERAK ETA GALDERAK

**Oier Iturraldek** aipatu du ez dakiela galdera hemen edo Hirigintzan egin beharko lukeen: noiz aldatuko dira RKEko sarrerako ateak?

Koldo Iturbek adierazi du planteamendu tekniko bat badagoela, planteamendu horri oniritzia eman zaiola, eta orain prozesu administratiboa abian jarri behar dela, aldaketa egiteko kontrataziorako. Ez da erraza izan, baina berehala bideratuko dugu. Jada badugu planteamendu bat mahai gainean.

**Paula Amievak** galdera egin du Gobernu Batzarrean Kultur Plan Estrategikoa onartu izanari buruz.

**Koldo Iturbek** esan du gai hori azaldu zela aurreko Artezkaritza Batzordearen saioan. Plan Estrategikoa aurreragotik dator, eta kontua Plan Estrategikoa eguneratzea da. Plan estrategiko hori Gobernu Batzarrean onartu behar zen; horren inguruan lan handia egin da, eta beste hainbat abian dago. Planaren inguruko bilerak egiten ditugu, eta hala dagokionean dagozkion memoriak egingo dira. Berririk badago, hona ekarriko ditugu.

Koldo Iturbek berriz gogorarazi du plan estrategiko horrek zehaztutako bidea, batetik, sorkuntza sustatzea dela. Bestetik, Musika Eskolarekin batera lanean aritzea. Horrez gain, barruan hartzen du ere azpiegitura berriak plan horretara egokitzea, zutabe nagusitzat hartu gure programazioa, musika.

**Paula Amievak** berariaz galdetu du Romoko Kultur Etxea beteko duten jardueren inguruan.

**Koldo Iturbek** aipatu du Romo Kultur Etxea nagusiki udalerriko eragile sozial eta kulturalak erabiltzera bideratuta dagoela. Kultur Etxeak eskaintza ere egingo du, baina protagonistak eragile kulturalak dira.

Getxo Antzokian ez dago espazio-lagapenik, RKEen daudenak bezalakorik, baina haren programazioan ere izango dute lekua eragile kultural eta sozialek, eta ez dute lekua Kultur Etxearen egitarauan bakarrik izango.

Kultur kudeatzaileari dagokionez, hark egingo du planaren jarraipena.

**Paula Amievak** galdetu du Udalak badakien jai-batzorde bakoitzak zer egingo duen emandako diruarekin, eta diru hori jarduera zehaztutara bideratuta dagoen edo zuzenean beraien eskuetan uzten den, nahi dituzten jarduerak egin ditzaten, modu irekian. Alegia, jakinda, adibidez, animaliak tartean dituen jarduera bat egingo dela, jakin daitekeen Udalak dirua jarri duen, eta hori badakien, ez besterik.

**Koldo Iturbek** erantzun du jai-batzordeentzako diru-laguntzen deialdi bat dagoela. Deialdi horretan batzorde bakoitzarentzako diru kopuru bat dago zehaztuta. Zenbateko hori jasotzeko, lehenik eskaera bat egin behar dute, eta programa-zirriborro bat aurkeztu behar dute, behin betikoa izango ez dena. Horren ondoren, jaiak igaro direnean, diru-laguntza justifikatu behar dute.

Aztergai gehiagorik ez dagoenez gero, batzarra amaitutzat eman da.